



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

BILBOKO
HEZKUNTZA
FAKULTATEA
FACULTAD
DE EDUCACIÓN
DE BILBAO

PRACTICUM II

GIDA

Haur eta Lehen Hezkuntzako Gradua

www.ehu.eus

Dokumentu hau Bilboko Hezkuntza Fakultateko Practicum Batzordeak egin du.

*“Zailak direlako, ez gara gauza asko egitera
ausartzen, baina zailak dira ez garelako
Egitera ausartzen”*

Seneka

*“Euskararen alde gauza asko egiteko prest
gaude. Gure esku dago garrantzitsuena:
hitz egitea”.*

Bernardo Atxaga

AURKIBIDEA

SARRERA	4
1. INFORMAZIOA ETA TESTUINGURUA	6
1.1. Practicum II-an parte hartzen duten pertsonen eginkizunak	
1.2. Harremana.....	9
2. PRACTICUMAREN PLANGINTZA ETA GARAPENA: PRACTICUM II	
2.1. Helburu orokorra.....	10
2.2. Gaitasunak	10
<i>2.2.1. Practicumaren gaitasun orokorrak (BOE 2007.12.29).....</i>	<i>10</i>
<i>2.2.2. Practicum II-aren kompetentzia espezifikoak</i>	<i>11</i>
2.3. Ikasleek eta tutoreek garatu beharreko zereginak	14
2.3.1. Ikasleek.....	14
2.3.2. Ikastetxeko irakasle tutoreek. Practicum II gainbegiratzeko egin beharreko zereginak	-
2.3.3. Unibertsitateko tutoreek bete behar dituzten zereginak.....	16
2.4. Practicumaren garapen faseak.....	18
2.5 Nota haztatzea	20
3. BIBLIOGRAFIA	21
4. ERANSKINAK	26

SARRERA

Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako Graduetako Practicum- IIko Gida hau jardunhorretan parte hartuko duten eragileek Practicum- IIari buruzko informazio garrantzitsua aurkitzeko agiria da.

Practicuma bi araudi nagusitan oinarritzen da: batetik, Eusko Jaurlaritzaren 33/2018 Dekretuan, martxoaren 6koa, Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza graduetao ikasleen praktikak arautzen dituen, eta, bestetik, UPV/EHUren Kudeaketa Akademikoaren Araudian, kudeaketa akademikoaren oinarriko alderdiak zehaztu eta antolatzen dituen artikuluan, hain zuzen. Irakasle titulazioei dagokienez, lankidetzaz-hitzarmena egin da Euskal Herriko Unibertsitatearen eta Eusko Jaurlaritzako Unibertsitate eta Ikerkuntza Sailaren artean, ikastetxeetan tutore (instrukto) izendatutako irakasleen parte hartzea eta unibertsitateko ikasleak ikastetxeetan egon ahal izatea bermatzeko.

Gradu berriek izaera profesionalizatzailea aitortzen diote Practicumari, ikastetxeetan egiten denez, ikasleak bere nortasun profesionala eraikitzeke berebiziko laguntza eskaintzen duelako. Praktikak ikasgela zehazterara lotuta daude, eta jardunean ari diren irakasleek tutorizatzen dituzte; horrela, ikaslea ikastetxeko ezagutzara sartzeaz gain, hezkuntza- prozesuko aldagai guztietara ere sartzen da. Irakasgai honen bidezko ikaskuntzaren kalitatea eta bikaintasuna bermatzeko, gradu berrietan Practicumaren eginkizuna indartu egin da; hala, kreditu-kopurua eta ikastetxeetan emaniko denbora, biak areagotu dira.

Gogoetaren bidez, gradu ko irakasgaietan barneratutako ezagutza benetako hezkuntza-egoeran txertatzeko aukerak aitortzen dio garrantzia Practicumari irakasleen hasierako trebakuntzan. Ikuspegi horretatik ezarri dira Haur eta Lehen Hezkuntzako Irakasle Graduetako Practicum- IIko gida honetan defendatzen den ereduak.

1. **IZAERA CURRICULARRA.** Practicuma 'Curriculum Practicuma' deritzonaren baliokidea da, hau da, "oinarriko prestakuntza aberastea" helburu duena, ikaskuntza akademikoak (teoriko eta praktikoak) prestakuntza- esperientziarekin, hau da, lan-zentroetan egindako ikaskuntzarekin osatuz" (Zabalza, 2006, 5. Or.).
2. **IZAERA PROFESIONALIZATZAILEA.** Practicuma funtsezko prestakuntza- eta heltze- prozesua da, Irakasle Graduko ikasle orok profesional on bihurtzeko eskuratu behar dituen gaitasunak garatzeko. Hori dela eta, Graduko bigarren ikasturtetik aurrera, ezagutza akademikoaren eta esperientzia praktikoaren arteko lotura bermatuko da.
3. **ERREALITATEARI LOTUTA.** Practicum hori ikaskuntza-prozesua da ereduaren behaketan eta eskola-testuinguru zehatz batean murgilduta, eta ikasleak lortu beharreko gaitasunak zalantzan jarri, hausnarketa indartu eta informazio eta baliabide berriak bilatzeko mobilizatzen du.
4. **INTERDEPENDENTZIAN OINARRITUTA.** Practicuma partaide guztiak aberasten dituen prozesua da: praktikak egiten diren ikastetxeetako irakasle tutoreak, Bilboko Hezkuntza Fakultateko irakasleak eta ikasleak. Parte-hartzaile bakoitzak beharrezko erantzukizuna eta motibazioa hartzen ditu esperientzia horren arrakasta bermatzeko.
5. **BERRIKUNTZAREKIN KONPROMETITUTA.**

Practicumak aldaketarekin eta hezkuntza-berrikuntzarekin konpromisoa du Halaber, teknologia berrien erabilera areagotzea eskatzen du, bai kudeaketaren alorrean bai inplementazio eta garapenean.

Ikasketa planaren arabera, Practicum II irakasgaia nahitaezkoa da, enborrekoa eta nahitaez betebeharreko prozedura bat dauka zehaztuta. Helburu dauka eskolako etaikasgelako errealitatea ikustea eta horri buruzko gogoeta egitea, guztia testuinguru sozioheztizaitetik bertatik.

1. INFORMAZIOA ETA TESTUINGURUA

Graduko ikasketa planeko irakasgaia izanik, praktiketako ikasleak ezin du izan praktiketako lan loturak, ezta horrelako loturak izan dezakeen pareko betebeharririk.

Praktikak egin bitartean, ikasleak eskola aseguruaren babesa izango du.

Ikasleak praktiketarako ikastetxea aukeratuko du eta bertan egingo ditu praktikak. Aparteko kasuetan, eta behar bezala egiaztatuta, ikasleak ikastetxez aldatzea eska dezake; eskaria Practicum-eko eta GRAL-eko dekanordeak ebatziko du Praktiketako Kontseiluaren iritzia kontuan izanda.

Practicum II-ko gida honen asmoa ikasleak Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako Graduetako Praktika Planean orientatzea da.

Indarrean dauden ikasketa-planetan indartu egin da ikasleen hasierako prestakuntzan praktikek duten garrantzia. Hala, 38 ECTS kreditu esleitu zaizkio: P-Iean 8 kreditu dira Haur Hezkuntzan eta 9 kreditu Lehen Hezkuntzan; P-IIan, 12 kreditu Haur Hezkuntzan eta 11 Lehen Hezkuntzan; eta P-IIIan, 18 kreditu.

Honako printzipio orokor hauek zuzentzen dute Practicuma:

1. ECTS KREDITUAK (European Credit Transfer System)
2. CURRICULUM GAITASUNAK. Gradu bakoitzak izaera bereziko gaitasunak profesionalak ditu.
3. LANKIDETZA EREDUA. Eredu horrek Unibertsitatearen eta praktikan dauden ikasleak hartzen dituzten ikastetxeen arteko harmonizazioa eta lankidetzaz sendotzen ditu.
4. MUGIKORTASUNA. Ikasleen mugikortasuna bultzatuko da, batez ere Estatuko unibertsitate-sarearen barruan, baina baita atzerriko unibertsitateetan ere (Europar nahiz Europatik kanpo).

Bilboko Irakasleen Unibertsitate Eskolako Praktiketako Zuzendariordetza eta Idazkaritza da Practicuma kudeatzeaz arduratzen den organoa, eta praktika-aldian izaniko edozein gorabehera edo izapide organo horretara bideratu behar da.

Practicuma –modulu bat da- hiru alditan dago banatuta, gaitasun orokorrak apurka- apurka lortzera bideratuak, eta aldi bakoitzeko ebaluazio independentea egiten da (begiratu 1. Taula).

	Gaitasun orokorrak	Maila	Haur Hezkuntza Kreditu kopurua	Lehen. Hezkuntza Kreditu kopurua
PRACTICUM I	Eskolako errealitatearen gaineko ezagutzak	2.	8 ECTS	9 ECTS
PRACTICUM II	Irakasle rolaen gaineko ezagutza eta, praktika, ikasgela eta irakaslearen antolaketa	3.	12 ECTS	11 ECTS
PRACTICUM III	Aurretik proposatutako proiektu didaktikoak praktikara eramatea	4.	18 ECTS	18 ECTS

1. Taula. Practicumaren hirualdiak.

1.1. Practicum-IIan parte hartzen duten pertsonen eginkizunak

EGINKIZUNAK				
Practicumeko Dekanordetza	Praktiketako Batzordea eta Irakasle Taldeak	Unibertsitateko tutorea	Ikastetxeko tutorea	Ikasleak
<ul style="list-style-type: none"> ▪ Praktiketan lagundu dezaketen ikastetxeei buruzko informazioa jasotzea Hezkuntzako Ikuskaritza Teknikoan. ▪ Graduko koordinatzaileen jarduerak koordinatzea. ▪ Unibertsitateko tutore bakoitzari orientatu beharko dituen ikasleak esleitzea. ▪ Ikasleak Ikastetxe Laguntzaileetan adskribatzea, bertan praktikak egin ditzaten. ▪ Ikastetxe Laguntzaileetako Zuzendaritzekin harremanetan jartzea, helburuen, jardueren eta ebaluaziorako araudien berri emateko. ▪ Ikasleei linea bidezko inkesta anonimoa egitea, Praktiken Plan Orokorra ebaluatzeko. Emaizak otsailean 	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Parte hartzen duten irakasleekin batera, prestaketako etapa antolatzea: (jardueraketa ordutegia). ▪ Departamentuei Practicumaren irakaskuntza- karga proposatzea. ▪ Unibertsitateko tutoreen jarduerak koordinatzea. ▪ Practicumaren Gidak egin eta eguneratu. ▪ Practicumaren garapenaren jarraipena egin. ▪ Practicumaren prozesuen ebaluazioa kudeatu. ▪ Zalantzak argitu, eskabideak eta erreklamazioak. 	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Practicumeko Dekanordetzak eta Titulazio Koordinatzaileak deituriko bileretara joatea. ▪ Talde baten ardura hartzea eta Fakultateko ikasketetako irakasgai ardatza den horren irakaskuntzaz jabetzea. ▪ Praktiketako ikasleen arretarako ordutegia kaleratzea. Ordutegia mintegiekin eta ikasleak dauden ikastetxeetako ordutegiarekin bateragarria izango da. ▪ Praktiketan dauden ikasleekin bilerak antolatzea, behaketa-aldianager litezkeen arazoak taldean ebazteko. ▪ Ikasleei Practicumaren programa helaraztea. ▪ Ikasleak orientatzea ikasgeletan jarduteko epe horretan teoria eta praktikaren arteko lotura egin dezaten, ikastetxeko tutorearekin lankidetzaz zorrotzean. 	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Ikasturtean zehar ezartzen diren aldietan praktiketako ikasleak hartzea. ▪ Praktiketan dauden ikasleei praktikak egingodituzten taldearen eta ikastetxearen ezaugarrien nahiz Ikastetxearen Curriculum Proiektuaren berri ematea, eta taldeari edo hezkuntza-unitateari nola egokituko zaion azaltzea. ▪ Practicumeko ikasleari ikastetxeko baliabideak eskaintzea, agindu zaizkion prestakuntza-ekintzak burutu ahal izan ditzan. ▪ Practicumean zehar irakasleekin batera aritzea; egin behar dituzten lanetan, beraien autonomia eta ardura bultzatzea. ▪ Bera arduratzen den Practicumeko ikasleak egin behar dituen prestakuntza-ekintza 	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Practicumeko faseak ezagutu eta horietan parte hartzea (informazio-bilerak, plazen banaketa, memoria ematea...), eta egoki betetzen laguntzea. ▪ Aurreikusitako mintegietan eta prestakuntza-programan parte hartzea. ▪ Ikastetxera puntualtasunez joateko baldintza betetzea, eta bertako araudia errespetatzea. ▪ Practicumaren programa ezagutzea, eta bera garatzen laguntzea. ▪ Ikastetxeko tutorearekin eta unibertsitateko tutorearekin lankidetzan aritzea. ▪ Agindutako agiriak zehaztutako Epean ematea.

<p>kaleratuko dira, Practicumen web orrian.</p>		<p>Egindako lana aztertzea:ingurunearen azterketa, zikloaren antolakuntza,ikasgelako antolakuntza,etab.</p> <ul style="list-style-type: none"> ▪ Ikastetxeetako Zuzendari edo Koordinatzaileekin eta ikastetxeetako tutoreekin harremana izatea. ▪ Ikasleei Praktiken Memoria prestatzen laguntzea, baloratzea eta sailkatzea, ezarriko diren jarraibideen arabera. ▪ Practicum-aldia kalifikatzea,hainbat elementu kontuan hartuta:ikasleek egindako lanak, ikastetxeko tutoreak egindako ebaluazioa, eta praktika-aldien jarraipenean egindako behaketak. ▪ Practicum hobetzeko iradokizunak eta ekarpenak egitea. 	<ul style="list-style-type: none"> ▪ orokorrak gainbegiratzea. Praktiketara dauden ikasleak gainerako irakasleekin batera parte hartzea bultzatzea, eta ahal den neurrian familiekin ere bai. Practicumaren prestakuntza-prozesua ebaluatzea, eta irakasleari beraren indarguneen eta ahulguneen berri ematea,horiek guztiak hobetu ahal izateko. 	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Hezkuntza-komunitateko kide guztiarekin harreman adeitsuak izatea. Isilpekotasun eta datu pertsonalen babeserako protokoloa betetzea.
---	--	--	--	---

1.2. Harremana

Edozein zalantza izanez gero **Praktiketako Zuzendariordetza-ra** jo daiteke:

[Practicumeko Dekanordetza Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako Gradua](#)

(Dekanordetzako bulegoa 0S13B)

Bilboko Hezkuntza Fakultatea Tel:

946 01 4640

Sarriena auzoa z/g 48940 Leioa

(Bizkaia)

bhf.practicum-lh-hh@ehu.eus

Bilboko Hezkuntza Fakultateko idazkaritza

Tel: 946 01 4631

Sarriena auzoa z/g 48940 Leioa (Bizkaia)

bhf.practicum@ehu.eus

2. PRACTICUMAREN PLANGINTZA ETA GARAPENA: PRACTICUM II

2.1. Helburu orokorra

Irakasle rolean kokatzea; horretarako, ikasleek aukera izango dute bide ezberdinetatik jasotako informazio guztia hezkuntza-errealitatearekin alderatzeko, baita graduako irakasgai teoriko eta nik ikasitakoa ere. Tarte horretan, funtsezkoa izango da ikasgela barruko tutore-ekintza betetzea, errealitate bakoitzak ematen dituen baldintzei egokituta; praktiketan dauden ikasleek kasu esanguratsuetarako konponbideak aztertu eta proposatu beharko dituzte diziplina anitzetan oinarrituta, eta Haur eta Lehen Hezkuntzako ezagutza-arlo ezberdinetan aplikatzeko sekuentzia didaktikoak sortzen hasi beharko dute. Halaber, hezkuntzari eragiten dioten egungo gizarteko gairik garrantzitsuenak aztertu eta gehitu beharko ditu, modu kritikoa: kultura aniztasuna eta kultura artekotasuna, diskriminazioa eta inklusio soziala eta garapen iraunkorra.

2.2. Gaitasunak

2.2.1. *Practicumaren gaitasun orokorrak (BOE 2007.12.29):*

1. Ikasgelari eta hura kudeatzeari buruzko ezagutza praktikoa eskuratzea.
2. Ikasgelako interakzio- eta komunikazio-prozesuak ezagutu eta ezartzea, eta ikasgelan ikaskuntza eta bizikidetzatza bultzatuko dituen giroa sustatzeko behar diren gizarte-gaitasun eta-trebetasunak menperatzea.
3. Hezkuntza-prozesua kontrolatu eta beraren jarraipena egitea, eta batez ere irakaskuntza-ikaskuntzarena, horretarako behar diren teknika eta estrategiak menderatuz.
4. Teoria eta praktika ikasgelako eta ikastetxeko errealitatearekin lotzea.
5. Irakaskuntza-jardueran parte hartzea eta egiten jakiten ikastea, praktikan oinarriturik, jardunez eta hausnartuz.
6. Ikastetxean ezar litezkeen jarduera-eremuak hobetzeko proposamenak egitea.
7. Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako ikasle-taldeetan interakzio- eta komunikazio-prozesuak arautzea.
8. Hezkuntza-komunitateko eta gizarte-inguruko sektoreekin lankidetzan aritzeko moduak ezagutzea

2.2.2. Practicum II-aren kompetentzia espezifikoak

PRACTICUM II-AREN KONPENTENTZIAK (HAUR HEZKUNTZAKO GRADUAN)		
Practicum II-aren gaitasunak		Ikaskuntzaren emaitzak
1.1	<p>Ikasgelako interakzio- eta komunikazio-prozesuak ezagutu eta ezartzea, eta ikasgelan ikaskuntza eta bizikidetza bultzatuko dituen giroa sustatzeko behar diren gizarte- gaitasun eta - trebetasunak menperatzea.</p> <p>(T.2 eta T.5 zehar-gaitasunak barne)</p>	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Ikasgelako interakzioa eta komunikazioa sustatzen dituzten estrategiak identifikatzen ditu, baita haurren balizko hizkuntza- disfuntzioak ere. ▪ Ikaskuntza eta bizikidetza bultzatuko dituen giroa sustatzeko estrategia egokiak erabiltzen ditu. ▪ Ikasleen parte-hartzea sustatzen du, euren ideiak eta egiten dituzten ekarpenak errespetatuz.
1.2	<p>Komunikazio eta adierazpen gaitasunak hobeto menperatzea ikasgela barruan zein kanpoan, hizkuntza ofizial bietan.</p> <p>(T.6, T.7 eta T.8 zehar-gaitasunak barne)</p>	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Hizkuntza argi eta zehatz erabiltzen du, unean uneko testuinguruari egokituta (irakasleekin bilerak; talde handiak, jolastokia, jantokia). ▪ Haur ikasleen garapenari egokitutako hizkera erabiltzen du, kultura eta hizkuntza anitzeko testuinguruetan hizkuntza ikasteko egoerei aurre egiteko eredu gisa balio du. ▪ Ikasleen interakzioa eta komunikazio-prozesua bultzatzen ditu. ▪ Hitzezko zein hitz-gabeko komunikazio bideak erabiltzen ditu, mezuekiko interesa mantentzeko egokiak.
1.3	<p>Hezkuntza-prozesua kontrolatu eta beraren jarraipena egitea, eta batez ere irakaskuntza-ikaskuntzarena, horretarako behar diren teknika eta estrategiak menderatuz.</p>	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan oinarritzko elementuak identifikatzen ditu. ▪ Irakaskuntza-ikaskuntza prozesuaren jarraipena egiteko teknika eta estrategia ezberdinak erabiltzen ditu (behaketa protokoloa, egunerokoa, koadernoak, parte-hartzea...).
1.4	<p>Irakaskuntza-jardueran parte hartzea eta egiten jakiten ikastea, praktikan oinarriturik jardunez eta hausnartuz.</p> <p>(T.7 bis eta T.10 zehar-gaitasunak barne)</p>	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Ikasgelako eguneroko zereginen prestaketa eta garapenean partehartzen du eta horiek hobetzeko proposamenak egiten ditu. ▪ Kontzeptu eta printzipioak ekintza zehatzekin lotzen ditu, irakaste-estragiak hausnartu eta identifikatuz.

PRACTICUM II-AREN KONPENTENTZIAK (LEHEN HEZKUNTZAKO GRADUAN)	
Practicum II-aren gaitasunak	Ikaskuntzaren emaitzak
<p>1.1</p> <p>Ikasgelako interakzio- eta komunikazio-prozesuak ezagutu eta ezartzea, eta ikasgelan ikaskuntza eta bizikidetza bultzatuko dituen giroa sustatzeko behar diren gizarte- gaitasun eta - trebetasunak menperatzea.</p> <p>(T.2 eta T.5 zehar-gaitasunak barne)</p>	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Ikasgelako interakzioa eta komunikazioa sustatzen dituzten estrategiak identifikatzen ditu, baita haurren balizko hizkuntza-disfuntzioak ere. ▪ Ikaskuntza eta bizikidetza bultzatuko dituen giroa sustatzeko estrategia egokiak erabiltzen ditu. ▪ Ikasleen parte-hartzea sustatzen du, euren ideiak eta egiten dituzten ekarpenak errespetatuz.
<p>1.2</p> <p>Komunikazio eta adierazpen gaitasunak hobeto menperatzea ikasgela barruan zein kanpoan, hizkuntza ofizial bieran.</p> <p>(T.3 zehar-gaitasunak barne)</p>	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Hizkuntza argi eta zehatz erabiltzen du, unean uneko testuinguruari gokituta (irakasleekin bilerak; talde handiak, jolastokia, jantokia). ▪ Haur ikasleen garapenari egokitutako hizkera erabiltzen du, kultura eta hizkuntza anitzeko testuinguruetan hizkuntza ikasteko egoerei aurre egiteko eredu gisa balio du. ▪ Ikasleen interakzioa eta komunikazio-prozesua bultzatzen ditu. ▪ Hitzeko zein hitz-gabeko komunikazio bideak erabiltzen ditu, mezuekiko interesa mantentzeko egokiak.
<p>1.3</p> <p>Hezkuntza-prozesua kontrolatu eta beraren jarraipena egitea, eta batez ere irakaskuntza-ikaskuntzarena, horretarako behar diren teknika eta estrategiak menderatuz.</p> <p>(T.10 zehar-gaitasunak barne)</p>	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan oinarriko elementuak identifikatzen ditu. ▪ Irakaskuntza-ikaskuntza prozesuaren jarraipena egiteko teknika eta estrategia ezberdinak erabiltzen ditu (behaketa protokoloa, egunerokoa, koadernoak, parte-hartzea...).
<p>1.4</p> <p>Teoria eta praktika ikasgelako eta ikastetxe orrealitatearekin lotzea.</p> <p>(T.10 zehar-gaitasunak barne)</p>	<p>Bi aukera:</p> <ol style="list-style-type: none"> 1. Prestakuntza teorikoa erabiltzen du ikasgelan eta ikastetxean ematen diren gertakari eta egoerak ulertu/interpretatzeko. 2. Irizpide pedagogiko egokiak erabiltzen ditu ikasgelan eta ikastetxean ematen diren gertakari eta egoerak ulertu/interpretatzeko. <ul style="list-style-type: none"> ▪ Informazioa bilatzen du taldearen beharrian espezifikoei erantzuteko

1.5	Irakaskuntza-jardueran parte hartzea eta egiten jakitenikastea, praktikan oinarriturik jardunez eta hausnartuz. (T.7 bis eta T.10 zehar-gaitasunak barne)	<ul style="list-style-type: none">▪ Ikasgelako eguneroko zereginen prestaketa eta garapenean parte hartzen du eta horiek hobetzeko proposamenak egiten ditu.▪ Kontzeptu eta printzipioak ekintza zehatzekin lotzen ditu, irakaste-estrategiak hausnartu eta identifikatuz.
------------	--	---

2.3. Ikasleek eta tutoreek garatu beharreko zereginak

2.3.1. *Ikasleek*

Praktika zentroan egon aurretik:

- Ikasleek aurreko prestakuntza egin beharko dute. Ikasturte bakoitzaren hasieran, ikasleak informazio zehatza jasoko du prestakuntza horren datei eta egiteko moduari buruz.
- Halaber, modu aktiboan parte hartu beharko du hitzaldi edota alde zuzen bidez egingo diren prestakuntza, ikuskapen eta jarraipen jardueretan, baita Bilboko Hezkuntza Fakultateko tutoreak programatutako taldekotutoretza- saioetan ere. Saio bakoitzaren amaieran, bertan aztertutako gai buri buruzko gogoeta prestatu beharko du (1. eranskina).
- Zehaztu beharko ditu zein diren haren iritziz ikasgai horretan lortu nahi dituen helburu zehatzak. Horiek mintegietan eta memorian hausnartzeko edukia izango dira.

Ikastetxeko egonaldian zehar:

- Ikasleek, praktika aldi osoan, **gutxienez 4 behaketa** egingo ditu ikasgelako funtzionamenduari buruz, eta bereziki gelako tutore den irakaslearen rolar buruz. Aztertutako alderdiak hauek izango dira: Praktika Zentroa (bakarrik zentro berria bada, bestela PI-ean eginda egongo da), PII-a egingo duten ikasgela eta ikasgelako heziketako esku-hartze prozesuak (Ikus 2. Eranskina). Zerrenda zehatzago bat erantsi da 3. Eranskinean, behaketa-lan horietan sar daitezkeen Eskolako errealitateko alderdiei buruz.
- Gainera, tutoreari lagunduko dio taldeekin edo banaka lan egiten eta aldi horretarako programatuta dagoen jardueraren bat garatuko du.
- Bere ekimenez, **gutxienez hiru esku-hartze saio** planifikatu, diseinatu eta gauzatu ditu ikastetxeko tutoreekin adostuta (esku-hartze saio bakoitza bere baitan osoa izanik). Ez da ahaztu behar esku-hartze saio bakoitzaren aurretik, bitartean eta ostean hausnartu behar duela beti. (Ikus 4. Eranskina: Norbere esku- hartzeen fitxa).

Ikastetxeko egonaldia bukatutakoan:

- Azken Memoria edo Txostena prestatuko du. Bertan jasoko dira, labur, aldi horretan egindako irakaskuntza-praktikaren azalpena eta azterketa (behaketa- inplementazioa-ebaluazioa), eta horren beraren balorazio kritikoa (Ikus 5. eta 6. Eranskinak). Memoria hori, behaketa eta esku-hartze saioen fitxekin batera (memoriaren eranskin bezala gehituko direnak) unibertsitateko tutoreari entregatuko zaion lan idatzia izango da.

Memoriak honako gidoi honi jarraitu beharko dio:

1. Azala (eta honako datu hauek: Ikaslearen izen-abizenak, ikasturtea, ikasten ari den graduaren izena, praktika zentroa eta azken hori dagoen herria)
2. Aurkibidea
3. Sarrera
4. Practicum II-aren helburu pertsonal eta akademikoak.
5. Lanaren enborra:
 - a. Talde-klasearen testuingurua, irakaskuntza-ikaskuntza metodologiak, tutorearen rola eta esku-hartze didaktikoen diseinua, ezarpena eta ebaluazioa.
 - b. Mintegiei buruzko hausnarketa eta ebaluazioa.
6. Ondorioak
7. Bibliografia. (Memoria osatzeko erabili diren iturriak -liburuak, aldizkariak, agiri ofizialak, etab.- egoki aipatu behar dira. Horretarako, kontsultatu Bibliografia prestatzeko arauak).
8. Eranskinak

Sarrerari dagokionez, haren helburu nagusia praktikak egin diren esparrua ezartzea da, horrela irakurlea kokatu egingo delako eta agiria errazago irakurriko duelako. Ez dago sarrera egitearen inguruko araudirik, baina honako hauei buruzko ideiak bil ditzake:

- Praktikak irakasleak prestatzeko curriculumarekin lotzea.
- Praktikak indarrean dagoen legeriarekin lotzea.
- Ondorio garrantzitsuren bat aurreratzea, bibliografian edo erreferentziatzko agiriren batean oinarritua.
- Agiriak dituen edukiak eta atalak aurkeztea.

Lanaren gorputzak Practicuma II-ren elementu nagusiak bildu behar ditu: a) behaketa, b) inplementazioa eta d) ebaluazioa.

- Behaketa: Ikasleak zentroari, zikloari eta ikasgelari buruz egindako oharra aztertuko ditu. Gainera, epilogo bezala kontakizun bat idatziko du, tutorearen rola eta irakaskuntzaren inguruan egin duen azterketan sakonduz.
- Inplementazioa: ikastetxeko egonaldian egindako 3 esku-hartzeen fitxak erantsiko dira.
- Ebaluatzea: ikasleak era kritikoan ebaluatuko ditu irakaskuntza praktikan izandako lorpenak eta zailtasunak (plangintza, garapena ta ebaluazioa), gaitasunak lortu diren ala ez diren lortu, eta hasieran proposaturiko ikasketaren emaitzak, praktika-aldiak irakasle-prestakuntzari egin dion ekarpen orokorra, etab.

Ondorioetan eta Practicum osoaren ebaluazioan, ikasleak honako bi galdera hauei erantzun behar die: Zer ikasi dut eskolako eta ikasgelako errealitateari buruz, beraren gizarte- eta hezkuntza-testuinguruan kokatuta? Zer ekarri dit Practicum II-n egindakoak nire etorkizun profesionalari begira? (6. eranskina)

Memorian ez dira sartuko Ikastetxeko agiriak, hala nola Hezkuntza Proiektua, Curriculum-proiektua, Barne-funtzionamenduko Araudia, Estatutuak, etab.

Memoria ulertzeko beharrezkoak diren atal edo zatiak baino ez dira barne hartuko, betiere aurretiaz memoria aipatu badira. Memoriaren luzera osoa 15-20 orrialde ingurukoa izango da, eranskinak kontuan hartu gabe.

Ikasleek egin eta eman beharko dituztendokumentuak	
1. Gogoeta-fitxa (mintegiak, jardunaldiak, hitzaldiak)	1. ERANSKINA
2. Behaketa eta gogoeta orria	2. ERANSKINA
3. Ikasgelako esku-hartzeen fitxa	4. ERANSKINA
4. Amaierako Memoria/Txostena	5. ERANSKINA

2.3.2. *Ikastetxeko irakasle tutoreek. Practicum II gainbegiratzeko eginbeharreko zereginak.*

- a) Practicumaren Araudia eta Ikasleen Practicum Gida ezagutzea. Bi agiri horiek Bilboko Hezkuntza Fakultateko Practicum web orrian eskura daitezke.
- b) Ikasleari azaltzea praktikak egingo dituen ikastetxearen eta taldearen edo eskola- unitatearen ezaugarriak, Ikastetxearen Curriculum Proiektua, taldeari edo hezkuntza- unitateari nola egokitzen zaion, eta ikastetxeak ikaslearen esku jarriko dituen baliabideak.
- c) Ikasleak ikasgelan egin behar dituen prestakuntza-ekintzak gainbegiratzeko (Ikasleen Gidan daude zehaztuta).
- d) Azken ebaluazioa egitea eta dagokion dokumentua betetzea (7. Eranskina). Ondoren, dokumentu hori ikasleari emango dio, honek BHFko tutoreari eskura eman diezaion, edo irakasle tutoreari helbide elektronikora bidaliko dio edo bestela, posta helbide honetara bidaliko du:

(Unibertsitateko Tutorearen izena)

Bilboko Hezkuntza Fakultatea

UPV/EHU

Sarriena Auzoa, z/g

48940 Leioa / Bizkaia

Ikastetxeko irakasle tutoreek eman beharko duten dokumentua

7.eranskina:Amaierako ebaluazioa ikaslearekin

2.3.3. *Unibertsitateko tutoreek bete behar dituzten zereginak*

Tutoreek Arautegia eta Ikaslearen Practicumaren Gida ezagutu beharko dituzte. Bi agiri horiek BHFko Practicumaren web orrian eskura daitezke. Gainera, hurrengo egitekoak beteko dituzte:

- Aurretiko prestakuntzako jardunaldietan parte hartzea.
- Esleitutako ikasleekin hasierako informazio-mintegia programatu eta kudeatzea, Practicumaren eta egin beharko dituzten lanen berri emateko. Materialak aurkeztea: gomendatutako irakurketak, lanerako tresnak (behaketa-fitxen azterketa, etab.) eta egitekoak burutzeko irizpideak...
- Ikastetxeko irakasle-tutorearekin harremanetan jartzea, Ikasleen Gida eta tutorearen Practicum Ilko gida helarazteko. Tresna horiek BHFko Practicum web orrian ere egongo dira eskuragarri. Garrantzitsua da irakasle-tutoreak praktiken helburuak, haien bidez zer lortu nahi den eta ikasleak burutu beharreko fase eta prozesuak zein diren ezagutzea.
- Talde-laneko mintegia programatu eta kudeatzea, ikaslea ikastetxean dagoen bitartean. Honako hauek dira saio horien helburuak: agindutako lanak bideratzea, arazoak aztertzea, zailtasunak ebaztea, esperientziak kontrastatzea...

Mintegietan burutzen den lan guztia 1. Eranskinean jaso beharko dute ikasleek. Mintegietan lantzeko gai interesgarrietako batzuk:

- Ikasleak ikastetxean bete behar dituen behaketa-fitxen azterketa. (2. eta 3. eranskinak).
- Ikasleek egindako jarduera didaktikoen azterketa eta kideen jarduerekin kontrastatzea (aukera dago saio batzuk bidez grabatzeko; material baliagarria izan daiteke) (10. Eranskina).
- Beste zentro eta irakasle batzuen teknika zehatzei buruzko esperientziaalternatibo batzuk ezagutzea, eta Praktiketako ikastetxean bizitako egoerekin konparatzea.
- Zentro horretako ikasgelan egindako esku-hartze pertsonal ezberdinen gaineko hausnarketa (4. Eranskina)
- Praktiketako Memoria egiteko ikasleei jarraibideak ematea (5. Eranskina).
- Sortzen diren hezkuntza-arazoak jorratzen dituzten irakurgaien gaineko eztabaida.
- Plangintza eta esku-hartze jardueri buruzko zalantzak argitzea.
- Gaitasun espezifikoak garatzea, bide eta baliabide espezializatuak menperatzea.
- Ikasleen artean iritziak eta esperientziak trukitzea.

Ikastetxeko egonaldia bukatu ondoren, ikasleen amaierako ebaluazioa egiteko mintegi bat programatu eta kudeatzea.

Instituzioak ikasle guztien azken notaren segurantzia izan dezan, unibertsitateko tutoreak 8. eranskina emango dio Praktiketako Zuzendariordetzari, martxoan. Horretarako, aurretiaz ikastetxeko tutoreen notak eta ikasleek eman beharreko agiriak izan beharko ditu eskuartean.

Nolanahi ere, Unibertsitateko tutoreak du maiatzean azken nota GAUREn jartzearen ardura.

Unibertsitateko tutoreek eman beharko duten dokumentua
8. eranskina: Kalifikazio orria EHUko irakaslearentzat

2.4. Practicumaren garapen faseak

Adierazi bezala, praktiken helburu nagusia da prestakuntza teorikoa osatzerabideratutako ekintzak egitea. P-II-aren helburu orokorra lortzeko, ezinbestekoa daplangintza egokia egitea, kontuan hartuta bi fase nagusiek (aurretiko fasea nahiz ikastetxeko praktiken jarraipena) funtsezko garrantzia izango dutela.

Aurretiko fasea

Honako jarduera hauek barne hartzen ditu:

- a) Hezkuntzarako gai interesgarriei buruzko hitzaldia.
- b) Tailer bat jardunean dauden irakasleekin.
- c) Prestakuntza mintegia Fakultateko tutoreekin:
 - Practicum II-ko Gida aurkezteko.
 - Praktika-aldian landu beharko dituzten helburuen, jardueren, epeen eta ezaugarrien berri emateko, eta lana egiteko emango zaizkien materialak azaltzeko (behaketa-gidak, memoriak, egunkariak, etab.).
 - Erabiliko diren ebaluazio-irizpideen berri emateko.
 - Aurreko ikasturteetan egindako esperientzia batzuk aurkeztu eta aztertzea (memoriak, gidak, diseinuak, egunkariak, etab.).
 - Bideo-grabazioak eta beste tresna batzuk erabiliz, ikasgela bat nola behatzen den laguntzeko.

Bilboko Hezkuntza Fakultateko irakasleak ikastetxeetako irakasle-tutoreekin harreman eta jarriko dira, honako hauek lotzeko:

- Practicumeko Ikaslearen Gidaren berri eman.
- Tutore gisa garatuko duten eginkizunaren berri eman (ikus 1.1 atala).
- Praktika horien alderdi garrantzitsuenen berri eman
- Ezarritako ebaluazio-irizpideen eta haien parte-hartzearen berri eman.
- Practicumak dirauen bitartean elkarrekin komunikatzeko bideak zehaztu

Jarraipen-fasea

Ikasleak ikastetxera doazen aldian egindako jarduerak aipatzen ditu jarraipen-faseak, eta hurrengoak hartzen ditu barne:

- Ikasleen eta irakasle-tutoreen arteko mintegi bat gutxienez Bilboko Hezkuntza Fakultatean, tutore bakoitzak ezarritako egutegiaren arabera.
- Bilboko Hezkuntza Fakultateko irakasle tutoreak ikastetxeetako irakasle-tutoreekin harremanetan egongo dira. Practicum honetan ez da bisitarik egongo zentroetara.

Ebaluazio-fasea

Unibertsitateko tutoreak ikasleen praktiketako azken kalifikazioaren ardura izango du. Horretarako, hurrengoak izango ditu:

- Ikastetxeko tutorearen ebaluazio-txostena.
- Ikasleek entregatzekoak: 1) prestakuntza-hitzaldien txostena; 2) mintegien txostena eta, 3) praktiken amaierako memoria erantsitako dokumentuekin.

Unibertsitateko tutorearen ebaluazioa

Unibertsitateko tutoreak kontuan hartuko ditu ikasleen parte-hartzea mintegietan, eztabaidetako ekarpen-kopurua eta horien kalitatea, inplikazioa gaietan, esperientziak aztertu eta horietaz hausnartzeko gaitasuna, baita lankideei entzun eta lankidetzan aritzeko gaitasuna. Ahozko gaitasun komunikatiboa egiteko, partaidetza hori hartuko da kontuan.

Memoria ebaluatzeko, unibertsitateko tutoreak honako irizpide hauek hartuko ditu kontuan:

1. Memoria egitean, ikasleak **hizkuntza gaitasun egokia** erakutsi behar du: Txostena ez da gai izango ez bada hizkuntzaren ulermenerako eta adierazpenerako gaitasun nahikoa erakusten. Ondoko hauek hartuko dira kontuan:
 - koherentzia, kohesioa, egokitasuna eta zuzentasuna
 - diskurtsoaren ulergarritasuna
 - lexikoa eta ortografia
 - Ergatiboa eta konkordantzia
2. Datuak aukeratu, antolatu eta aurkeztea, behaketen ebidentziak aztertzeko.
3. Analisi eta sintesi gaitasuna, gaitasun kritikoa eta hausnartzekoa, bai behaketei, bai bere ekintzei buruz.
4. Gaien antolaketa, atalak: txostenaren egitura.
5. Esfortzu maila, lorpenak eta lortutako ezagutzak gaitasunei dagokienez.
(Kontsultatu 9. Eranskina)

Plagioari dagokionez, ezin da beste batek egindako obraren kopia edo imitazioa aurkeztu, norberak eginabaitz bezala. Ikasleak zitatuz arauak ezagutu eta erabili beharkoditu. Plagioa egin dela susmatzen bada UPV/EHU ko Etika Akademikoari buruzko protokoloa beteko da. (<https://www.ehu.es/documents/2100129/0/6.-+a%29++Protocolo+plagio+-+EUSK.pdf/9305b6c7-919a-97d4-aa66-8564fb728502>)

Ikasleei Praktika-aldiko Memoriak ematea

Praktiketako lanak eta memoriak eta horiei erantsitako materiala hurrengo ikasturtera arte gordeko ditu irakasleak. Epe hori igarota, itzulketa ez bada eskatu, suntsitu egingoda.

Memoriak eta lanak osorik edo zati batean argitaratzeko, kopiatzeko, edo beste edozein gauzatarako erabiltzeko, ezinbestekoa izango da egilearen edo egileen berariazko adostasuna (EHUko kudeaketa-araudia, 49. artikulua).

Ikastetxeko irakasle-tutorearen ebaluazioa.

Irakasle tutoreak orri bat izango du eskura ikasleak ebaluatzeko kontuan har ditzakeen adierazleekin (7. Eranskina). Honako alderdi hauek hartuko ditu kontuan: puntualtasuna eta bertaratzea; interesa eta motibazioa; ikasteko interesa, ikasleekin enpatia izatea; tutoreari eta zentroari laguntzeko jarrera; etab.

Ikasgelako egonaldia bukatuta, ebaluazioa BHFko irakasle-tutoreari igorriko zaio, amaierako ebaluazioan sardezan.

2.5 Nota haztatzea

Practicum II-aren ebaluazioan, honako eragile ebaluatzaile, baliabide eta ehuneko hauek izango dira:

ERAGILE EBALUATZAILEA	EBALUAZIOA	EMANDAKO EHUNEKOA
Unibertsitateko tutorea	Kalifikazio globalerako txantiloia(8. eranskina) MEMORIA EBALUATZEKO ERRUBRIKA (9. eranskina)	70%
Ikastetxeko tutorea	Ebaluazio-txostena (7. eranskina)	30%
		100%

- * Kontuan izan behar da BHFko tutoreak %10 aitortuko diola komunikazio-gaitasunari, eta gaitasun egokia lortu ezean ez dela gai izango.
- ** Jarraipen-mintegietara ez joateak puntu bat kenduko dio azken notari, joaten ez den aldi bakoitzeko.
- *** Logikoki, irakasgaia gainditu ahal izateko ezinbestekoa da atal guztiak gainditzea.

a. Praktiketari gutxiegi kalifikazioa eskuratuko da honako kasu hauetan:

- Praktika-zentrori justifikatu gabe bitan joaten ez bada, ikasgaia suspendituta egongo da, eta beraz, praktikak osorik errepikatu beharko dira.
- Ikastetxeko tutoreak emandako kalifikazioa 10etik 5 puntu baino txikiagoa bada, ikasgaia suspendituko da eta, beraz, praktikak osorik errepikatu beharko dira.
- Atal guztiak sartu ostean, unibertsitateko tutoreak ikasleak egindako jarduerari nahikotzat jo ezean, ikasgaia suspendituko da. Ikasleak bigarren deialdian aurkeztu eta beste memoria bat egin beharko du. Kasu horretan, irakasgaia gainditzen ez badu, praktikak berriz ere osorik egin beharko ditu.

b. Praktikek ez aurkeztuta kalifikazioa izango dute ikaslea ikasgaiari matrikulatuta badago baina esleitutako ikastetxera ez badao, edo Praktiketako Zuzendariordetzaren baimenik gabe eta zentro hori eta unibertsitateko tutore batesleitu gabe badao.

3. BIBLIOGRAFIA

WEBGRAFIA OROKORRA

<http://www.berritzeguneak.net/>

<http://www.educaplay.com>

<http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net>

<https://ikasgunea.euskadi.eus/es/web/bizikasi> <https://www.eleanitz.org/>

BIBLIOGRAFIA OROKORRA

Bilboko Hezkuntza Fakultatea. (2018). *Praktikak. Bilboko Hezkuntza Fakultateko araudia*. Bilboko Hezkuntza Fakultatea: Leioa.

https://www.ehu.es/documents/2955630/8871586/PRAKTIKAK+Araudia_eusk.pdf/83509_d08-6758-15fa-159c-5751798a63b7 tik hartuta.

33/2018 DEKRETUA, martxoaren 6koa, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko ikastetxeetan irakasle izateko gaitzen duten unibertsitate-ikasketen Practicumari buruzkoa. *Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria*. Vitoria-Gasteiz, 2018ko martxoaren 23an, zb. 59, 1-14 orr

77/2023 DEKRETUA maiatzaren 30ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoan Oinarritzko Hezkuntzaren curriculumaz ezarri eta ezartzeari buruzkoa.

3/2020 Lege Organikoa LOMLOE, abenduaren 29koa, Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoa aldatzen duena

IKASLERIAREN BIBLIOGRAFIA ESPEZIFIKOA

AA. VV. (2013). *Mejora de la práctica docente. Una experiencia de autoevaluación*. Vitoria-Gasteiz: Gasteiz: Departamento de Educación Política Lingüística y Cultura. Gobierno Vasco.

Agelet, J., Albericio, J., Aragües, A., eta beste batzuk. (2001). *Estrategias organizativas en el aula. Propuestas para atender la diversidad*. Barcelona: Graó.

Aretxaga, L. (Koord.). (2013). *Hezkuntza orientabideak. Adimen gaitasun handiko ikasleak*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritz.

http://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/dig_publicaciones_innovacion/eu_es_cu_i nc/adjuntos/16_inklusibitatea_100/100012e_Pub_EJ_altas_capacidades_e.pdf tik hartuta.

Aubert, A., Duque, E., Fisas, M. eta Valls, R. (2004). *Dialogar y transformar. Pedagogía crítica del siglo XXI*. Barcelona: Graó.

Aubert, A., Flecha, A., García, C., Flecha, R. eta Racionero, S. (2008). *Aprendizaje dialógico en la Sociedad de la Información*. Barcelona: Hipatia Editorial.

Elboj, C., Puigdemellívol, I., Soler, M., eta Valls, R. (2002). *Comunidades de aprendizaje. Transformar la educación*. Barcelona: Graó.

Escamilla, A. (2009.) *Las competencias en la programación de aula. Infantil y Primaria (3- 12 años)*. Barcelona: Graó.

Eusko Jaurlaritzak. (2012). *Orientaciones para la elaboración del plan individual de refuerzo educativo (PIRE) en la educación básica*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzak. http://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/dig_publicaciones_innovacion/es_diversid/adjuntos/17_aniztasuna_120/120011c_Pub_EJ_plan_refuerzo_basica_c.pdf tik hartuta.

Eusko Jaurlaritzak. (2019). *II Plan de coeducación para el sistema educativo vasco, en el camino hacia la igualdad y el buen trato (2019-2023)*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzak. http://www.euskadi.eus/contenidos/plan_departamental/40_plandep_xileg/es_def/Plan%20coeducaci%C3%B3n%20sist.%20educativo.pdf tik hartuta.

Eusko Jaurlaritzak. (2019). *Plan marco para el desarrollo de la Escuela inclusiva*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzak. http://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/dig_publicaciones_innovacion/es_escu/adjuntos/16_inklusibitatea_100/Plan_Marco_Escuela_Inclusiva_2019_2022_c.pdf tik hartuta.

Gardner, H. (2011). *Inteligencias múltiples. Teoría en la práctica*. Barcelona: Paidós.

Gobierno de Navarra. (1996). *Observación y evaluación. Educación Primaria*. Gobierno de Navarra. Departamento de Educación y Cultura.

House, S. (Koord.). (2011). *Investigación, innovación y buenas prácticas: teacher development*. Barcelona: GRAO.

Inclúed (2011). *Actuaciones de éxito en las escuelas europeas*. Madrid: MEC. <https://sede.educacion.gob.es/publiventa/PdfServlet?pdf=VP14963.pdf&area=E> tik hartuta.

Jaussi, M.L. (Koord.)(2002). *Euskadiko Ikaskuntza Komunitateak*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.

Martín, M. P. (2011). *Inteligencias múltiples. Intereses y aficiones*. Madrid: San Pablo.

